DONOSTIAKO TRANBIA KONPAINIA, S.A.
COMPAÑÍA DEL TRANVÍA DE SAN SEBASTIÁN, S.A.

DONOSTIAKO TRANBIA KONPAINIA, SAUn MEKANIKARI-ELEKTRIKARI BALIOANIZTUNAREN LAN POLTSA SORTZEKO HAUTATZE PROZESUAREN DEIALDIA.

- **1.2 FASEAREN EMAITZA (PROBA PROFESIONAL PRAKTIKOA).**
- **3. FASEA EGITEKO DEIALDIA (ELKARRIZKETA ETA ANALISIS PERTSONALA).**
- **4. FASEKO DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA (MERITUEN BALORAZIOA).**

Lehenengo.- Mekanikari-Elektrikari Balioaniztuna Lan Poltsa osatzeko hautaketa prozesuaren **1.2. Faseari - Proba Profesional Praktikoa dagozkion emaitzak** argitaratzen dira:

- **1.ERANSKINA: KANPO DEIALDIA**
- **2.ERANSKINA: BARNE SUSTAPENA**

Bigarren.- Interesatuek egokitzat hartzen dituzten alegazioak egin ahal izango dituzte 3 lanegunez, zerrenda argitaratu den eguna barne (**2025eko abenduaren 23, 24 eta 26an**), horretarako prestatutako inprimakia bete eta aurkeztuta Donostiako Tranbia Konpainiako bulegoetan, Fernando Sasiain kalea 7, 9:00etatik 13:00ak arte.

Langileak Hautatzeko Batzordeak ebatziko ditu alegazioak, eta behin ebatzita, behin-betiko emaitzak argitaratuko ditu www.dbus.eus web orrian eta Donostiako Tranbia Konpainiako bulegoetan, 2026ko urtarrilaren 7tik aurrera.

Hirugarren.- Aurreko proban GAI izan diren hautagaiei dei egiten zaie 3. Fasea - Elkarrizketa eta Analisi Pertsonala egitera joan daitezen

2026ko urtarrilaren 9an izango da, OTEIC Taldearen bulegoetan, Zuatzu Enpresa Parkea, Igeldo Eraikina, 1. solairua - 20018 Donostia. Esleitutako txanda ikusi 3. ERANSKINEAN.

Oinarrieta aurreikusitakoaren arabera, hautagaiei elkarrizketa egingo zaie banan-banan, eta horrez gain banaka edota taldeka beste proba batzuk ere egingo zaizkie, haien ezaugarri pertsonalak eta gaitasunak bete nahi duten lanpostuaren ezaugarriekin bat datozen ala ez jakiteko.

Proba gainditzeko gutxienez 12 puntu lortu behar dira, 20 puntutik.

Hautagaiek jatorrizko NAN, pasaportea edo gidabaimena erakutsi beharko dute. Dokumentu horietako bat ez badute aurkezten, ezin izango dituzte probak egin.

Fase bakoitzera joateko deia hautagai guztiei batera egingo zaie. Hautaketa Batzordeak deitutako probara adierazitako lekuan, egunean eta orduan agertzen ez diren hautagaiak Hautaketa Prozesutik kanpo gelditutko dira behin betiko.

Laugarren.- 4.Faseari dagokion dokumentazioa aurkeztea (Merituen Balorazioa).

Hautagaiek Merituen Balorazioari dagokion dokumentazioa aurkeztu beharko dute (lan esperientzia profesionala), 3. Fasea - Elkarrizketa eta Analisi Pertsonala egitera deitzen zaien egunean. Dokumentazioa aurkeztu beharko dute **baldin eta onarpen-prozesurako aurkeztutakoaz gain informazio gehiago badute bakarrik.**

Gogorarazten da, Deiadiaren oinarrien arabera, Gizarte Segurantzak egindako egiaztagiriekin edo/eta enpresa ziurtagiriekin egiaztatuko dela lan-esperientzia profesionala.

Gogorarazten da Langileak Hautatzeko Batzordeak egiaztatu ahal izango duela hautagaiek Hautaketa Prozesuan zehar aitortutako dokumentazioa/emandako informazioa egiazkoa dela, eta automatikoki deialditik kanpo utzi ahal izango dituela informazio faltsua aurkeztu duten hautagaiak.

Halaber, hautaketa-prozesuan zehar, onartutako hautagaien zerrenda eta euskara mailaren zerrenda egiteko erabili den jatorrizko dokumentazioa aurkezteko eskatuko zaie hautagaiei, egiazta dadin.

Hautaketa Prozesuaren garapenarekin loturik sortzen den informazio guztia jakinarazteko, ondoko bide ofizial hauetan argitaratuko da:

- **Web orria: https://www.dbus.eus/beste-zerbitzu-batzuk/pertsonalaren-aukeraketa/**
- **Donostiako Tranbia Konpainiako iragarki taula (Fernando Sasiain 7, Donostia)**
- **Barne sustapenaren txandaren kasuan, www.dbus.eus orrian (langileaen atarian, Barne Deialdiaren atalean).**

Stua.: Langileak Hautatzeko Batzordea
Donostia, 2025eko abenduak 23

DONOSTIAKO TRANBIA KONPAINIA, S.A.
COMPAÑÍA DEL TRANVÍA DE SAN SEBASTIÁN, S.A.

1.ERANSKINA:
Mekanikari-Elektrikari Balioaniztunaren Hautaketa-Prozesuaren 1.2 Fasearen emaitza - Proba Profesional Praktikoa.

KANPO DEIALDIA

IDENTIFIKAZIO KODEA	1.2 FASEAREN PUNTUAZIOA (gutxienez 21/30 puntu)
MEE25-001	24,60
MEE25-004	26,70
MEE25-005	EZ DU GAINDITU
MEE25-011	EZ DU GAINDITU
MEE25-012	21,00

DONOSTIAKO TRANBIA KONPAINIA, S.A.
COMPAÑÍA DEL TRANVÍA DE SAN SEBASTIÁN, S.A.

2.ERANSKINA:
Mekanikari-Elektrikari Balioaniztunaren Hautaketa-Prozesuaren 1.2 Fasearen emaitza - Proba Profesional Praktikoa.

BARNE SUSTAPENA

IDENTIFIKAZIO KODEA	1.1 FASEAREN PUNTUAZIOA (gutxienez 12/20 puntu)
MEI25-014	29,40

3.ERANSKINA:

3.Fasea – Elkarrizketa eta Analisi Pertsonala egiteko deialdia, OTEIC Taldearen bulegoetan (Zuatzu Enpresa Parkea, Igeldo Eraikina, 1. solairua - 20018 Donostia)

IDENTIFIKAZIO KODEA	EGUNA	ORDUA
MEE25-001	2026/01/09	15:00
MEE25-004	2026/01/09	15:45
MEE25-012	2026/01/09	16:45
MEI25-014	2026/01/09	17:30